Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Blas Ugalde Alberdi

Bergara, Gipuzkoa (1923)



Aurkibidea

Biografia



Mugertza kalean jaio zen, lau anai-arrebatatik bigarrena. Aita Bergarakoa zen, zapataria, eta ama berriz, Urretxutik lanera etorritakoa. Herriko Eskolan eta Seminarioan ikasi eta gero, 1934. urtean Goiko Plazan jarri zuten ikastolara joan zen gerra hasi zen arte. Hamahiru urterekin Oregi Unzurrunzaga lantegian ekin zion lanari, nazionalen armadarentzako ehuna ekoizten. Soraluzeko “Industrias Osuma” eta Bergarako Aranes eta Mil lantegietan ere egin zuen lan. 1944. urtean ama egunkariak saltzen hasi zen plazako kioskoan. Seme-alabek laguntzen zioten egunkariak banatzen. Bergarako ehungintza, lehengo egunkariak eta bere salmenta, eta Madura kale inguruan zeuden baserriei buruz hainbat azalpen ematen ditu.

Zintak

BER-277

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2010-12-01
- **Iraupena**: 70 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Umetan Mugertza kaleko etxera bizitzera

- **Erref**: BER-277/002
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:01:18. **Bukatu**: 00:02:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Aitaren gurasoak Mugertza kaleko etxe batean bizi ziren eta beraiek ere hara

joan ziren, bera umea zela. Hiru anai-arreba ziren ordurako eta laugarrena hantxe jaio zen. Etxe atzealdean ortua zuten. Lur-sail batzuk alokatu egiten zituzten. Oiloak ere bazituzten.

2. Del Barrio maisua; 1934an ikastolara

- **Erref**: BER-277/003
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:02:15. **Bukatu**: 00:04:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Umetan Del Barrio irakaslearekin ibili zen, Goiko Plazako eskolan. Hura kendu zutenetik irakasle asko izan omen zituen. Seminarioan ere ibili zen eta baita Ikastolan ere. 1934an sartu zen ikastolan eta gerra hasi arte ibili zen.

3. 40 ume inguru Bergarako gerra aurreko ikastolan

- **Erref**: BER-277/006
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:06:09. **Bukatu**: 00:07:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
40 ume inguru ibili ziren gerra aurrean ikastolan Maria Oianguren irakaslearekin. Neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren eta baita adin desberdinetako umeak ere. Berak 11 urte inguru zituen orduan. Gerraren etorrerarekin amaitu zen ikastola.

4. Bergara gehienean euskaraz egiten zen

- **Erref**: BER-277/012
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:10:19. **Bukatu**: 00:11:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Eskolan euskaraz egitearren ez zieten zigorrik jartzen. Ikastolan gaztelaniaz hitz egiteagatik ere ez. Lagunartean dena euskaraz egiten zuten. Euren auzo ingurua euskalduna zen; San Antonio aldean gaztelaniaz gehiago hitz egiten zen. Bergara gehienean euskaraz egiten zen.

5. Kanoikadak Elgetatik Bergarara

- **Erref**: BER-277/015

- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:12:26. **Bukatu**: 00:14:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gerra sasoian bonbak izan ziren Bergaran, frontea Elgeta eta Bergara artean egon zen eta. Gorriak Elgetan zeuden eta frankistak Bergaran, San Juanen. Artilleria izugarria egon omen zen Bergaran. Elgetatik kanoikadak botatzen zituzten. Nolako obusak erabiltzen ziren. Zazpi hilabete inguru egin zituen fronteak Bergara inguruan. Orduan ez zuten goserik pasa, gosea gerraostean etorri zen.

6. 13 urterekin Oregi lantegian, oihalak paketatzen

- **Erref**: BER-277/020
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:18:30. **Bukatu**: 00:20:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:
13 urterekin Oregi oihal-lantegian hasi zen lanean. Biltegian lan egiten zuen, oihalak neurtu eta paketatzen. Garai hartan militarrentzako oihalak egiten zituzten, denak kaki kolorekoak. Gerora, "oihal urdinak" egiten zituzten; bi tela klase: mahoia (alkandorentzat) eta sarga (prakentzat).

7. Oregi oihal-lantegia: telak egin eta urdinez tindatu

- **Erref**: BER-277/022
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:20:28. **Bukatu**: 00:21:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:
Oihal-lantegian bi eratako oihalak egiten zituzten: mahoia (lisoa) eta sarga (marrak edo zerbait zuena). Tela zuriak egiten ziren eta gero urdinez tindatu. Oregi lantegian prozesu guztia egiten zuten. Blasek biltegian lan egiten zuen. Batzuetan, denbora sobera izaten zuenez, lantegikoei laguntzera joaten zen.

8. Oihala egiteko makina; laneko ordutegia

- **Erref**: BER-277/023
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:21:45. **Bukatu**: 00:23:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:
Oihala nola egiten zen. Haria makinan alde batetik bestera nola pasatzen zen. Gerora beste sistema batzuk etorri ziren. Zortzi ordu lan egiten zituzten normalean, lau goizetik eta lau arratsaldetik.

9. Oihalak paketatu eta trenez bidaltzen ziren

- **Erref**: BER-277/024
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:23:28. **Bukatu**: 00:24:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:
Oregi lantegiko biltegian oihalak paketatzen egiten zuen lan. 60 metro inguruko lau pieza edukitzen zituen oihal biribilki bakoitzak. Gero garraiolariak Goiko Estaziora eramaten zituen, trenez bidaltzeko.

10. Kamioiekin edo gurdiekin garraioan ibiltzen zirenak

- **Erref**: BER-277/026
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:25:25. **Bukatu**: 00:27:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:
Garraiolariek erabiltzen zituzten kamioiak. Gerra aurretik Berraondo eta Idarreta garraiolariak zeuden. Gurdiekin garraioan ibiltzen zirenak ere bazeuden: Zangitu `Soldaukua´ eta Oteiza `Moukua´. Ikatza edo irundegietarako artile edo kotoi fardoak ere garraiatzen zituzten.

11. Bergarako Aranes lantegian lanean

- **Erref**: BER-277/030
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:35:07. **Bukatu**: 00:36:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:
<p>Trefilatzeko makinak egiten zituzten lantegian eta gauza gehiago ere bai. Aranes eta Mil lantegiak banatu egin ziren eta berak Aranes-en jarraitu zuen

lanean. Lantegi berria egin zen. Patente italiarra zuten makinekin lan egiten zuten.

12. Mugertza inguruko kale-baserriak

- **Erref**: BER-277/035
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:39:35. **Bukatu**: 00:42:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Mugertza ingurua. Eurak bizi diren etxea eta inguruko beste batzuk kale-baserriak ziren. Inguruan zeuden beste baserri batzuk ("Mou" gainekoa, aldekoa eta azpikoa). "Soldaukua" eta "Arando". Inguruan zegoen lantegia. Nola aldatu den ingurua. Mutikotan garia jotzen laguntzen ibiltzen ziren"Soldaukua" kale-baserrian .

13. Ama egunkariak saltzen

- **Erref**: BER-277/042
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:49:40. **Bukatu**: 00:50:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
1940 inguruan Artekalera joan ziren bizitzera. Amak egunkariak saltzeko ardura hartu zuen eta beraiek lagundu egiten zioten.

14. Bergara osoan egunkariak saltzen; plazako kioskoa

- **Erref**: BER-277/044
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:50:43. **Bukatu**: 00:53:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Amak egunkariak saltzeko ardura zuen eta hari laguntzen ibiltzen ziren. Trenean etortzen ziren egunkariak. Pakete batzuk hartu eta plazara joaten zen Blas. Han geratzen zen, arkupean, egunkariak saltzen. Gerora, kioskoa jarri zuten. Herri osoan zehar egunkariak saltzeko lan-banaketa nola egiten zuten. Urte askoan egin zuten lan hori. Bukaeran kotxearekin egiten zuen banaketa.

15. Trenean etortzen ziren egunkari paketeak

- **Erref**: BER-277/046
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:53:09. **Bukatu**: 00:54:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Egunkariak trenean etortzen ziren. Amak "Altos Hornos"era eramaten zuen pakete bat eta beraiek kalean saltzen zituzten. Blasek geltokitik plazara bizkarrean ekartzen zituen egunkarien bi pakete. Ama, bi arrebak eta bera ibiltzen ziren lan horretan. Hasieran ez ziren hainbeste egunkari izaten. Gerora, plazan saltzen zituztenean, bai.

16. Saltzen zituzten egunkarien izenak

- **Erref**: BER-277/047
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:54:42. **Bukatu**: 00:56:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Ze egunkari saltzen zituzten. Hasieran "La voz de España", "Gaceta", "Correo"... eta astelehenetan "Hoja oficial". Gehien saltzen zena "La voz de España" izan zen hasieretan, gerora "El Diario vasco". "Pensamiento navarro" izenekoa ere ekartzen zuten.

17. Mikeleteak eta ijitoak; zergak

- **Erref**: BER-277/053
- **Iraupena**: 0:03:39. **Hasi**: 01:00:55. **Bukatu**: 01:04:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:
Blasen osaba bat mikeletea zen. 5-6 mikelete egongo zirela orduan Bergaran dio. Mikeleteek probintzien mugetan ijitoak hartu eta beste probintzia batera pasatzen zituztela kontatzen du. Oinez joaten ziren. Orduan "arbitrioak" (ariela) egoten zirela dio. Orduko zergen inguruko kontuak. Udalak kobratzen zituen. Udaleko bi langile ibiltzen ei ziren zaldia eta karroarekin.

18. Ama tifusarekin gaixotuta

- **Erref**: BER-277/056
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 01:05:28. **Bukatu**: 01:06:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:
Ama tifusarekin kutsatu eta txarto egon zen. Elizakoak ere eman omen zizkioten. Ahizpak etortzen ziren hura zaintzera eta umeak etxetik kanpora ateratzen zituzten, ez kutsatzeko. Eskolan jakin omen zuen Blasek amari elizakoak eraman zizkiotela.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-30

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com